

Esan behar du:

Gastuen egoera, VII. kapitulua- Kapital transferentziak: 159.729,79

Guztira: 1.198.896,98

Dioen lekuan:

Sarrerren egoera, VIII. kapitulua- Finantza aktiboak: 16.828,34

Guztira: 1.215.724,32

Esan behar du:

Sarrerren egoera, VIII. kapitulua- Finantza aktiboak: 0

Guztira: 1.198.896,98

Agurain, 2002ko maiatzaren 29a.- Lehendakaria, M<sup>a</sup>. CARMEN LIÑARES FILLOY.

Debe decir:

Estado de Gastos, Capítulo VII.- Transferencias de Capital: 159.729,79

Total: 1.198.896,98

Donde dice:

Estado de Ingresos, Capítulo VIII.- Activos Financieros: 16.828,34

Total: 1.215.724,32

Debe decir:

Estado de Ingresos, Capítulo VIII.- Activos Financieros: 0

Total: 1.198.896,98

En Salvatierra-Agurain, a 29 de mayo de 2002.- La Presidenta, M<sup>a</sup>. CARMEN LIÑARES FILLOY.

### Administrazio Batzarrak

#### QUINTANILLA DE LA RIBERA

3.695

**Quintanilla de la Ribera**ko Ur Ordenantzen Eranskinaren iragarkia.

Kontzeju honek, 2001eko abenduaren 20an egindako bilera, Quintanilla de la Riberako Ur Ordenantzen Eranskinaren aldaketari hasierako onespina eman zion eta jendaurrean egon den epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartutzat jo da.

#### Eranskina: Edateko ura banatzearen tarifa.

Etxeko erabilera, hiruhereroko kuota.

- Zenbateko finkoa: 6 euro.

- 0-tik 36 m<sup>3</sup>-ra bitartean: 0,18 euro/ m<sup>3</sup>.

- 37 m<sup>3</sup>-tik aurrera: 0,30 euro/ m<sup>3</sup>.

Industriarako erabilera, hiruhereroko kuota.

- Zenbateko finkoa: 12 euro.

- 0-tik 36 m<sup>3</sup>-ra bitartean: 0,20 euro/ m<sup>3</sup>.

- 37 m<sup>3</sup>-tik aurrera: 0,30 euro/ m<sup>3</sup>.

Hartune berriagatik ordaindu beharreko tasa: 100 euro.

#### Eranskina: estolderiaren tarifa.

Etxeko zerbitzua, hiruhereroko kuota.

- Zenbateko finkoa: 3 euro.

- m<sup>3</sup> bakoitzeko: 0,05 euro.

Hartunea baimentzeagatik: 10 euro.

Jendearen aurrean jartzen da guztion ezagupenerako. Quintanilla de la Ribera, 2002ko maiatzaren 20a.- Batzarburu-Lehendakaria, JESÚS CASTRO SANTOS.

#### TROKONIZ

3.732

2002ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Kontzejuak hasierako onarpena eman zion Trokonizko Auzolanen Ordenantza aldatzeko espedienteari. Jendaurrean jartzeko epean bat ere erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartutzat jo da eta osorik argitaratuko da indarra har dezan.

Trokoniz, 2002ko ekainaren 3a.- Erregidore-Lehendakaria, JUAN GARCÍA DE VICUÑA RUIZ DE ARCAUTE.

#### TROKONIZKO AUZOLANEN ORDENANTZA

1. artikulua.- XEDEA. Ordenantza honen xedea da auzokoen auzolanak erregulatzea eta definitzea. Auzolantzat jotzen dira nahitaezko prestazio pertsonalak, Trokonizko Kontzejuan egin beharrekoak, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 44. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Kontzejua nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasuna duen toki erakunde bat da, udalerria baino txikiagoa den lurralde eremu batean jurisdikzioa duena.

### Juntas Administrativas

#### QUINTANILLA DE LA RIBERA

3.695

**Anuncio Anexo Ordenanza de Aguas de Quintanilla de la Ribera.**

Habiendo sido aprobado inicialmente por este Concejo, en sesión celebrada el día 20 de diciembre de 2001, la modificación del Anexo de la Ordenanza de Aguas de Quintanilla de la Ribera y no habiéndose presentado reclamaciones durante el periodo de su exposición al público, queda definitivamente aprobada.

#### Anexo tarifa de suministro de agua potable

Cuotas trimestrales uso doméstico

- Canon fijo: 6 euros

- De 0 a 36 m<sup>3</sup>: 0,18 euros/m<sup>3</sup>.

- De 37 m<sup>3</sup> en adelante: 0,30 euros/m<sup>3</sup>.

Cuotas trimestrales usos industriales

- Canon fijo: 12 euros

- De 0 a 36 m<sup>3</sup>: 0,20 euros/m<sup>3</sup>.

- De 37 m<sup>3</sup> en adelante: 0,30 euros/m<sup>3</sup>.

Tasa por nueva acometida: 100 euros

#### Anexo tarifa de alcantarillado

Cuotas trimestrales servicio doméstico

- Canon fijo: 3 euros

- Cada m<sup>3</sup>: 0,05 euros

Por autorización de acometida: 10 euros

Lo que se hace público para general conocimiento en Quintanilla de la Ribera, a 20 de mayo de 2002.- El Regidor-Presidente, JESÚS CASTRO SANTOS.

#### TROKONIZ

3.732

Habiendo sido aprobado inicialmente por este Concejo, en sesión celebrada el día 23 de febrero de 2002, el expediente confeccionado para modificar la Ordenanza de Veredas de Trokoniz, y no habiéndose presentado reclamaciones durante el periodo de su exposición al público, queda definitivamente aprobada y se lleva a cabo su publicación íntegra para su entrada en vigor.

En Trokoniz, a 3 de junio de 2002.- El Regidor Presidente, JUAN GARCÍA DE VICUÑA RUIZ DE ARCAUTE.

#### ORDENANZA DE VEREDAS DE TROKONIZ

Artículo 1.- OBJETO. Esta Ordenanza tiene por objeto la regulación y definición de las veredas vecinales, entendidas como prestaciones personales obligatorias, que se han de producir en el Concejo de Trokoniz, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44 de la Norma Foral 11/1995 de 20 de marzo, de Concejos del Territorio Histórico de Álava.

Se entiende por Concejo la entidad local de carácter territorial que, con propia personalidad jurídica y capacidad de obrar, ejerce su jurisdicción en una demarcación territorial de menor extensión que la constituida por el término municipal.

2. artikulua.- DEFINIZIOAK. Ordenantza honen ondorioetarako, ondoko definizio hauek ezartzen dira:

2.1.- Auzoko familia: Kontzejuan bertan, gutxienez urtean zazpi hilabetez, bizitoki bera duen pertsona edo pertsonen multzoa; horietako kide bat, gutxienez, Kontzejuko erroldan erregistratua izan behar da.

2.2.- Egoitzadunak: Kontzejutik kanpo bost hilabete baino gehiagoz bizi izanda, edozein tituluren bidez Kontzejuan etxebizitza duen pertsona edo pertsonen multzoa. Pertsona multzo horretakoak senideak izan daitezke ala ez, eta kontzejuko erroldan erregistratuak izan daitezke ala ez.

2.3. Auzolana: auzokoek eta/edo egoitzadunek Trokonizko Kontzejuren barrutian edo haren jabetzako ondasun edo ondareetan eraiki, konpondu eta mantentzeko egiten dituzten lanak edo ekintzak, edo hark esleitura dituen ondasun edo ondareetan, erabilera edo zerbitzu publikorako badira.

Bi motatakoak dira:

2.3.1.- Ohiko auzolanak: urtean zehar sortzen diren auzolanak dira eta haien helburua Kontzejuko ondasunak eta zerbitzuak instalatzea eta egoera onean mantentzea da. Ondasun horiek erabilera edo zerbitzu publikokoak dira.

Hauek dira auzolanetan egin daitezkeen ekintzak:

a) Herriko bide publikoak eta haien osagai guztiak zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

b) Saneamenduak, isurbideak, estoldak, lorategiak, iturriak, putzuak eta garbitokiak konpondu, hobetu eta garbitzea.

c) Kontzejuren ur instalazioak konpondu, mantendu eta zaintzea, ura hartzen den lekutik etxeetako hartuneetaraino, Kontzejuk titulartasuna duen lekuetan.

d) Kontzejuren jabetzakoak diren eraikin eta espazio publikoak konpondu, garbitu eta zaintzea.

e) Kontzejuren jurisdikziozko lurraldean, pertsonentzat dauden arriskuak saihesteko ekintzak.

f) Bideak, landako bideak, mendi bideak eta bidezidorrak ireki, konpondu eta mantentzea.

g) Kontzejuren onurarako izan daitezkeen beste edozein ekintza.

2.3.2.- Ohiz kanpoko auzolanak: hondamendietan, uholdeetan, suteetan eta aurreikusi ezin daitezkeen bestelako ezbeharretan egin beharreko auzolanak.

3. artikulua. BETEBEHARRAK.

3.1.- Auzolanak guztien onerako dira. Horregatik, nahitaezkoa da kontzeju honetako auzokoen familia edo egoitzadun multzo bakoitzetik ordezkari bat auzolanetara joatea eta agindutako lanetan esku hartzea, beti ere egin beharreko auzolanaren izaera eta mota direla eta kasu bakoitzerako ezarrita dagoenari eutsiz. Auzolanetan parte hartzen dutenak 16 eta 65 urte bitartekoak izango dira.

3.2.- 2.1 artikuluan definitutako auzokideek Ordenantza honen 2.3.1 artikuluan idatz zatietan aipatzen diren auzolan guztietan parte hartuko dute derrigorrez.

2.2 artikuluan definitutakoak, berriz, Ordenantza honen 2.3.1 artikuluan f) idatz zatian aipatzen diren auzolanetatik libre daude.

3.3.- Aurreko idatz zatian xedatutakoaren arabera behartuta daudenez gain, aprobetxamenduren batez baliatzen diren auzokoek edo egoitzadunek (luberrak, egurketa, e.a.), aprobetxamendu horrekin lotutako auzolanetan parte hartu behar dute nahitaez.

4. artikulua.- DEIALDIA

4.1.- Auzolana egiteko deialdia Administrazio Batzarburuak egingo du, honakoak adieraziz aldi berean: zein lan egin behar den, zer ordutan eta non hasiko den, gutxi gorabehera zer ordutan amaituko den eta zein lanabes eraman behar den.

4.2.- a) Auzolanetarako deialdiak ohiko moduan egingo dira eta iragarkien taulan, auzokoek zein egoitzadunek auzolanen deialdiaren jakitun izateko besteko denboraz.

b) Ohiz kanpoko auzolanetan, premiazkoak direnez gero, egoerak hala eskatzen duen unean egingo dira deialdiak. Auzolanen berri eman ezin zaienak lan horietatik salbuetsita egingo dira.

Artículo 2.- DEFINICIONES. A los efectos de la presente Ordenanza se establecen las siguientes definiciones:

2.1. Familia vecinal: persona o conjunto de personas que habitan regularmente en la misma vivienda dentro del término del Concejo durante al menos siete meses al año y alguno de sus miembros se encuentra inscrito en el Padrón Concejil.

2.2. Familia moradora: persona o conjunto de personas, unidas o no por lazos familiares que, habitando fuera del término del Concejo más de cinco meses, poseen por cualquier título, alguna vivienda dentro del mismo, se encuentren o no inscritas en el padrón municipal.

2.3. Vereda: obra o actividad a realizar dentro del término del Concejo de Trokoniz o en las propiedades o posesiones del mismo y que tenga por objeto la construcción, reparación o mantenimiento de un bien perteneciente al Concejo, destinado al uso o servicio público, realizada por los vecinos y/o moradores del mismo.

Se dividen en:

2.3.1. Veredas Ordinarias: Son aquéllas que se producen durante el año, y cuyo fin es posibilitar la instalación y el buen estado de los bienes y servicios del Concejo, destinados al uso o servicio público.

Las actuaciones que pueden ser realizadas en las veredas son:

a) Conservación, reparación, mejora y limpieza de vías públicas urbanas con todos los elementos que las componen.

b) Reparación, mejora y limpieza de saneamientos, desagües, alcantarillas, jardines, fuentes, pozos y lavaderos.

c) Reparación, mantenimiento y conservación de las instalaciones de agua del Concejo, desde la captación original hasta las acometidas de las casas, en todo aquello que sea de la titularidad del Concejo.

d) Reparación, limpieza y mantenimiento de los edificios y espacios públicos propiedad del Concejo.

e) Actividades tendentes a evitar riesgos y/o peligros para las personas dentro del territorio jurisdiccional del Concejo.

f) Apertura, reparación y conservación de caminos, vías rurales, forestales y sendas.

g) Cualquier otra actuación necesaria para el bien común del Concejo.

2.3.2. Extraordinarias: aquellas que se produzcan con motivo de calamidades, inundaciones, incendios o cualquier otro fenómeno no previsible.

Artículo 3. OBLIGACIONES.

3.1.- Siendo las veredas una cuestión que afecta al bien común se establece el carácter obligatorio de la asistencia a las mismas, así como la realización de las labores encomendadas, de al menos un representante de cada familia vecinal y/o moradora, según quede establecido en cada caso dependiendo de la naturaleza y tipo de vereda a realizar. Los participantes deberán tener entre 16 y 65 años de edad.

3.2.- Los vecinos definidos en el artículo 2.1 están obligados a participar en todas las veredas a las que se refieren los apartados del artículo 2.3.1 de esta Ordenanza.

Los definidos en el artículo 2.2 están exentos de participar en las veredas a las que se refiere el apartado f) del artículo 2.3.1 de esta Ordenanza.

3.3.- Aparte de los obligados en el apartado anterior, los vecinos o moradores que disfruten de algún aprovechamiento (roturos, fogueras, etc.), estarán obligados a participar en las veredas que afecten directa o indirectamente al bien objeto de aprovechamiento.

Artículo 4. CONVOCATORIA.

4.1.- La convocatoria para la realización de una vereda será realizada por el Presidente de la Junta Administrativa, que en el mismo acto determinará la tarea a realizar, hora y lugar de comienzo, así como útiles que habrá de aportar.

4.2.- a) Las convocatorias a las veredas ordinarias se realizarán por el medio habitual y en el tablón de anuncios de la Entidad con el tiempo suficiente para que los vecinos y moradores puedan darse por enterados de la convocatoria de las mismas.

b) Las veredas extraordinarias, dado el carácter de urgencia de las mismas, se convocarán en el momento que la situación lo requiera. Las personas a las que no se les pueda notificar estarán exentas de participar en las mismas.

4.3.- Edonola ere, Administrazio Batzarrak auzolanak arrazoizko epe baten barruan nola egin aztertuko du, lana premiazkoa den, eguraldia eta abar kontuan harturik. Helburua auzokoak eta egoitzadunak ahalik eta modurik erosoenean lan egitea da.

#### 5. artikulua.- AUZOLANAK EGITEKO MODUA.

5.1.- Oro har, alde zuzen zehaztutako lekura eta esandako orduan joanez parte hartuko da auzolanetan. Guztiek beren lanabesak edo makineria eraman behar dituzte, egin beharreko prestazioaren arabera zehaztutakoak.

5.2.- Auzolanen liburu ofizial bat beteko da, gorabehera guztien berri jasotzeko.

5.3.- Administrazio Batzarburuak antolatuko ditu auzolanak eta horiek erarik egokienean gauzatzeko moduan banatuko ditu pertsonak eta baliabide materialak.

5.4.- Auzolanerako unea erabakitzerakoan, kontu egingo da ez dadin Kontzejuaren barrutian lanik gehien suertatzen den garaiarekin bat etorri, orobat, kontu egingo da asteko zein egun hautatzen den, bai auzokoek bai egoitzadunek denek agertzeko modua izan dezaten.

5.5.- Egin beharreko lanen tamainaren eta hedaduraren arabera, deialdia bizilagun kopuru finko bati edo pertsona bakar batzuei zuzentzeko aukera dago. Horiek, gaitasun eta eskuragarritasun irizpideei jarraikiz aukeratuko dira, modu horretan beste bizilagunei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko asmoz. Dena den, egiten dituzten auzolanak kontuan hartuko dira deialdi orokorrak egiten direnerako, eta horietatik libre gelditu ahal izango dira.

5.6.- Kontzejuak auzolanetan parte hartzen dutenak babestuko ditu. Horretarako, auzolanek sorraraz ditzaketan istripu arriskuetaik eta bestelako arriskuetaik babesteko asegurua egingo da.

5.7.- Auzolanak egiteagatik ez da inolara ere lan harremanik sortuko Kontzejuaren eta auzolanetara behartuta daudenen artean.

#### 6. artikulua.- LANETATIK LIBRATZEA

6.1.- Auzolanetan parte hartu behar duten bizilagun guztiek bete behar horietatik libratuko dira ondoko moduren batean, beti ere Administrazio Batzarburuari 24 ordu lehenago auzolanetara joango ez direla jakinarazten badiote:

a) Bere lana egin dezakeen ordezko bat hara bidaliz

b) auzolan bakoitzeko alde zuzen zehaztutako 6 euro ordainduta prestazioaren ordu bakoitzeko, Administrazio Batzarreko buruak dagokion eran likidazioa aurkeztu ondoren. Diru kopuru hori aldatu ahal izango da, Kontzeju Irekiak hala erabakitzen bada.

c) Egin ez den auzolana ordezkatzeko beste auzolan bat egitea, betiere, hutsaren arrazoiak justifikatuta bada. Auzolan hori Administrazio Batzarburuak jakinarazten dion egunetik hasi eta gehienez hurrengo hilabetean egin behar da.

Lanetatik libratzeko modu hauek auzolanera behartuta dagoena auzolan osora nahiz zati batera agertzen ez bada ezarriko dira.

6.2.- Auzolanetara behartuta dagoena ez bada auzolan osora edo zati batera agertzen eta aurreko idatz zatian adierazten den bezala Administrazio Batzarburuari arrazoi justifikaturik ematen ez badiu, artikulua honetako 1 paragrafoa b) letra ezarriko zaio eta, beraz, bertan adierazitako diru kopurua ordaindu behar da.

6.3.- Administrazio Batzarburuak, azaroan, lanetatik libratzeagatik egoki diren likidazioak egingo ditu.

Bilketa hori indarrean den bilketa prozedurako araudiari jarraikiz egingo da. Bide exekutibotik kobratzea eskatu ahal da, Arabako Kontzeju Buruzko Foru Arauan xedatzen denaren arabera.

#### 7. artikulua.- PRESTAZIOAREN ORDAINA EDO KALTEORDAINA.

Auzolanetara behartuta daudenean, ibilgailu eta motordun makineria utziaz lanetan parte hartu badute, ordain ekonomikoa jaso ahal dute, auzolanek eragindako kalteen ordainetan, Kontzejuak erabakitzen duen moduan.

4.3.- En cualquier caso la Junta Administrativa estudiará la posibilidad de la realización de las veredas dentro de un plazo razonable, atendiendo a los casos de urgencia, tiempo atmosférico, etc. para que las obras sean realizadas por los vecinos y moradores a su mejor comodidad.

#### Artículo 5.- MODO DE REALIZAR LAS VEREDAS.

5.1.- Como norma general las veredas se efectuarán acudiendo al lugar y a la hora que se hayan señalado para dar comienzo a las mismas, provisto cada uno de los asistentes de las herramientas o maquinaria que se hayan determinado para el tipo de prestación a realizar.

5.2.- A tal fin se llevará un libro oficializado de veredas donde quedarán reflejadas las incidencias oportunas.

5.3.- El Presidente de la Junta Administrativa organizará la ejecución de los trabajos de la vereda y procederá a la distribución de las personas y de los medios materiales de la forma más conveniente para su desarrollo.

5.4.- Al fijarse el momento de la prestación se procurará que ésta no coincida con la época de mayor actividad laboral en el término Concejal, y también se podrá tener en cuenta el día de la semana en que se establezca, a efectos de posibilitar la asistencia tanto de los vecinos como de los moradores.

5.5.- En función de la magnitud y extensión de las obras a realizar, el llamamiento podrá recaer en un número concreto, e incluso individualizado, de obligados. Estos serán designados con un criterio de pericia y disponibilidad, de forma que cause el menor quebranto posible al resto y las veredas a las que asistan se podrán compensar con aquellas otras de llamamiento general de las que podrán ser excusados.

5.6.- El Concejo formalizará la protección de quienes participen en las veredas concertando un seguro que cubra los riesgos de accidente y las contingencias que de él se deriven.

5.7.- La realización de veredas queda expresamente excluida de cualquier relación laboral entre el Concejo y los obligados a las mismas.

#### Artículo 6.- REDENCIONES.

6.1.- Todos aquellos obligados a acudir a la vereda podrán redimirse de la misma, siempre y cuando se haya notificado la ausencia a la misma al Presidente de la Junta Administrativa con una antelación mínima de 24 horas a la celebración de la vereda, de alguna de las siguientes formas:

a) acudiendo en su lugar otra persona capaz de realizarla

b) abonando la cantidad de 6 € por hora de prestación personal, que se hará efectiva previa liquidación notificada en debida forma por el Presidente de la Junta Administrativa. Dicha cantidad se podrá modificar según lo acuerde el Concejo Abierto.

c) realizando otra vereda compensatoria de la no efectuada siempre y cuando la falta obedezca a causa justificada. Dicha vereda deberá ser realizada en el período máximo de un mes a contar desde la fecha de la notificación por parte del Presidente de la Junta Administrativa.

Estas formas de redención serán aplicables tanto para la no asistencia total como parcial del obligado a la vereda convocada.

6.2.- La no asistencia total o parcial del obligado a la vereda convocada, sin causa justificada comunicada al Presidente de la Junta Administrativa de la forma que se establece en el apartado anterior, presupondrá la aplicación de la letra b) del apartado 1 de este artículo y al abono, en consecuencia, de la cantidad establecida en el mismo.

6.3.- El Presidente de la Junta Administrativa practicará durante el mes de noviembre de cada año las liquidaciones que por el concepto de redención corresponda.

Esta recaudación se practicará de acuerdo con la normativa reguladora del procedimiento recaudatorio vigente, pudiéndose exigir su cobro por vía ejecutiva, de acuerdo con lo dispuesto en la Norma Foral de Concejos de Álava.

#### Artículo 7.- RESARCIMIENTO O INDEMNIZACIÓN POR EL EJERCICIO DE LA PRESTACIÓN.

Los obligados a la vereda que cumplieran con la prestación de vehículos y maquinaria motorizada para la que han sido requeridos, podrán percibir una compensación económica a modo de resarcimiento o indemnización por los perjuicios que ello les cause, según lo acuerde el Concejo.

Ordain ekonomiko hori ez da inoiz lansaritzat hartuko.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Trokonizko Auzolanen aurreko Ordenantza, 1995eko martxoaren 13ko Arabako Lurralde Historikoaren 30 zenbakiko ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutakoa, indargabeturik gelditzen da.

#### AZKEN XEDAPENA

Ordenantza, Kontzeju honetako Auzokoen Biltzarrak 2002ko otsailaren 23an egin zuen bilkuran onetsi zen, eta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean; indarrean segituko du aldatzea erabakitzen den arte.

Trokoniz, 2002ko otsailaren 23a.- Batzarburua, JUAN GARCÍA DE VICUÑA RUIZ DE ARCAUTE.

### Mankomunitateak

#### SUTEEN KONTRAKO ETA SALBAMENDU LANETARAKO PARTZUERGOA

3.666

2984 zenbakiko iragarkiaren tituluan eta oinean egindako huts egiteak zuzentzea (2002ko maiatzaren 22ko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALa, 57. alea).

Iragarki horren edukia ondo badago ere, dioen lekuan "2001eko ekitaldiko hasierako aurrekontua jendaurrean jartzeko iragarkia" esan behar du "2002ko ekitaldiko hasierako aurrekontua jendaurrean jartzeko iragarkia". Eta oinean dioen lekuan "Llodio-Laudio, 2001eko maiatzaren 9a" esan behar du "Llodio-Laudio, 2002ko maiatzaren 9a".

Llodio-Laudio, 2002ko ekainaren 4a.- ZUZENDARITZA BATZORDEA.

#### GORBEAKO INGURUEN PARTZUERGOA

3.697

#### Kontu Orokorra jendaurrean jarriko dela iragartzea

Gorbeako Inguruen Partzuergoaren Batzar Nagusiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako baliozko bilkuran, aldeko irizpena eman zion 2001eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorrari. Kontu hori jendaurrean jarriko da hamabost eguneko epean, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, interesdunek egoki irizitako erreklamazioak, eragozpenak edo ohartarazpenak azal diezazkioten aipatutako Batzarrari.

Murguía, 2002ko maiatzaren 28a.- Partzuergoaren burua, JOSÉ M<sup>a</sup> IBÁÑEZ DE ELEJALDE LOYO.

#### "KANTAUURIKO URKIDETZA" UR PARTZUERGOA

3.708

#### Iragarkia

2002ko martxoaren 26ko ohiko bilkuran "Kantauriko Urkidetza" Ur Partzuergoko Batzar Orokorrak Partzuergoko Goiko Sareko Urez Hornitzeko Zerbitzua emategatik ordaindu beharreko Tasa arautzen duen Zerga Ordenantzari behin-behineko onespina ematea erabaki zuen (2002ko apirilaren 26ko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALa). Erabaki horren aurka alegazioak aurkezteko epea igaro denez, eta bat ere erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betikotzat jo da, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1989 Legearen 16.3 artikuluan zehaztutakoaren arabera. Argitara ematen da Ordenantzaren testu osoa argitaratuz, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.21 artikuluan eta aipatutako 39/1989 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako ondorioak izateko. Ondorioak Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik izango ditu. Hona hemen testu osoa hitzez hitz:

Tal compensación en ningún momento se podrá considerar salario.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la anterior Ordenanza de Veredas de Trokoniz publicada en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 30 de 13 de marzo de 1995.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza, que fue aprobada por la Asamblea de Vecinos de este Concejo en sesión de 23 de febrero de 2002, entrará en vigor el día siguiente al de su publicación íntegra en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación.

Trokoniz, a 23 de febrero de 2002.- El Presidente, JUAN GARCÍA DE VICUÑA RUIZ DE ARCAUTE.

### Mancomunidades

#### CONSORCIO DE PREVENCIÓN, EXTINCIÓN DE INCENDIOS Y SALVAMENTO

3.666

Corrección al error cometido en el título y pie del anuncio número 2984 (BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 57 del 22 de mayo del 2002).

Si bien el contenido del mencionado anuncio es correcto, en el título del mismo donde dice "Anuncio de exposición al público del presupuesto inicial para el ejercicio 2001" debía de decir "Anuncio de exposición al público del Presupuesto Inicial para el ejercicio 2002" y al pie del mismo donde dice "En Llodio-Laudio, a 9 de mayo del 2001", debía decir "En Llodio-Laudio, a 9 de mayo del 2002".

Llodio-Laudio, a 4 de junio del 2002.- LA JUNTA RECTORA.

#### CONSORCIO ESTRIBACIONES DEL GORBEA

3.697

#### Anuncio de exposición al público de la Cuenta General

La Asamblea General del Consorcio Estribaciones del Gorbea, en sesión ordinaria celebrada el día 20 de mayo de 2002, aprobó la Cuenta General correspondiente al ejercicio de 2001. Queda expuesta dicha Cuenta al público por el plazo de quince días, desde el siguiente al de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, para que durante dicho plazo puedan los interesados presentar las reclamaciones, reparos u observaciones que estimen pertinentes ante la mencionada Asamblea.

En Murguía, a 28 de mayo de 2002.- El Presidente, JOSÉ MARIA IBÁÑEZ DE ELEJALDE LOYO.

#### CONSORCIO DE AGUAS "KANTAUURIKO URKIDETZA"

3.708

#### Anuncio

Transcurrido el plazo para la presentación de alegaciones contra el acuerdo adoptado por la Asamblea General del Consorcio de Aguas "Kantauriko Urkidetza" en sesión celebrada el día 26 de marzo de 2002 y publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava de 26 de abril de 2002, relativo a la aprobación provisional de la imposición de la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por Prestación del Abastecimiento en Alta del Agua del Consorcio, sin que se haya formulado reclamación alguna, de conformidad con lo establecido en el artículo 16.3º de la Ley 39/1989 de 28 de diciembre, Reguladora de las Haciendas Locales, se eleva a definitivo dicho acuerdo. Lo que se hace público a los efectos previstos en el artículo 70.21 de la Ley 7/1985 de 2 de abril y artículo 16.4º de la citada Ley 39/1989, con la publicación íntegra de texto de la Imposición de la referida Ordenanza que surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, cuyo texto es del siguiente tenor literal: